

Baina hamazazpigarren mendeaz gero, japoniar nazionalismoaren eraginez, eta jatorrizko xintoismoaren izenean, Ryobu Xintoaren kontrako borroka hasi zen eta Meiji enperadorearen garaian (1868-1912), nazionalismo horren oinarritzat jatorriko xinto erlijioa bere jatorritasunean berreraiki zuten ofizialki. Erlijio estatal bihurtu zuten xinto-a, baina horren edukina oso murriztua gelditu zen: hau da, aberriarekiko eginbideak, aberriaren aldeko \*errito batzuk eta bereziki enperadorearen gurtza --hori Jainkoagandikoa omen bait da--.

Xintoismo estatalari --ofizialki babestu horri-- jinja-xinto edo \*santutegietako xintoismoa izena eman zioten. 1945eko Munduazaleko Bigarren Gerratearen ondoren, erlijio-modu hori debekatu egin zuten. Ik. Jinja.

Bitartean, eta XVII. mendeaz gero, xintoismo herritar jatorrizkoaren berreskuratze-mugimendua gertatu zen, eta, budismotik bereiziz, eta xinto ofizialaz aparte, bere autonomiaz bizi da, eta 40 milioi fededun ditu gaur. Sekta-xintoismoa izena ere eman ohi diote erlijio-forma herritarrari, ofizial eta estatalaren "kontrako" horri.

Izadi-erlijioa da xintoismoa: hau da, izadi osoa naturaz-gaineko indarrez beterik ikusten du; horiek, bizidun bihurturik eta jainkoetsirik, \*kami izena hartzen dute. Mundua kami-z beterik dago, beraz. Izadiko indarrak ezezik, hainbat arbaso ere kami bihurtzen omen da. Horregatik, arbasoen gurtzapena da xintoaren beste ardatzetako bat. Baina horren \*eskatologia oso zehazkabea eta lainotsua da. Kontaezinak dira, kami-ak, eta xintoismoa bera kamien bidea ere deitu ohi dute. Ik. Asaben gurtza.

Mitologia aberatsa du xintoismoak. Japoniaren sorreran Isanagi jainkoa eta Esanami jainkoa omen daude. Beraiengandik omen dator Amaterasu, Eguzki jainkosa eta enperadorearen arbasoa. Enperadorea jainkotarra omen da, beraz, eta beraren gurtza aberriarekiko atxekimenduaren eta estatuaen "jainkotasunaren" oinarrian dago.

Ik. Enperadorearen gurtza; Jainkoespena.

Paulo Agirrebaltzategi

### Xivaismoa

Saivismoa ere esaten da. Hinduismoaren barruan, Xiva jainkoaren gurtza nabarmentzen duen eskola edo \*Konfesioa. Xiva-k nahiz Visnu-k lekukotzen omen dute egokien \*Brahman edo Izaki Gorena; horregatik horien gurtza benetan Brahman-en gurtza da; ondorioz \*Brahma-ri lekua kendu diote.

Xiva-k ez du \*avatara-rik edo ez da haragiztatzen. Dantzariaren itxuran irudikatzen dute batzutan, dantzatzean suzko zirkulua egiten duela: munduaren egitea eta desegitea adierazten ditu nonbait horrela. \*Trimurti-ri buruzko irakatsian, ahal desegilea du Xiva-k; desegiteko ahal horrek, ordea, adiera positiboa du bizitzaren eta heriotzaren zikloan.

Xivaismoak, \*visnuismoaren kontra, ez du avatara-en irakasbidea onartzen; eta, alde horretatik \*monoteismo garbiagoa irakasten du.

Xivaismoaren ezaugarria \*lingam-a da. Horren jarraitzaileei, berriz, saivak edo xivaitek deritzate.

## Y

### Yi

1. Kontzeptu metafisikoa Txinako filosofian: Unibertso aldakuntz printzipio funtsezkoa, Yin-en eta Yang-en arteko eraginez sortua. Izadiko, gizarteko eta izpirituko gertakarietan nabarmentzen da printzipio hori.

2. Kontzeptu etikoa, bereziki \*konfuzianismoan garrantzi handia duena: \*justizia adierazten du, hots, zuzen jokatzeko bertutea.

### Yin-Yang

Ik. Kosmosa.

### Yoga (Joga)

Sanskritoz uztarria (lotura) esan gura du.

Patañjali (K.a. IV. mendekoa) da yoga eskola konkretuaren sortzailea, eta Yoga Sutra, horren oinarrizko liburua. Baina yogak, \*izpiritubideko metodo denez, esanahi zabalagoa du, eta ekialdetar izpiritubidean

oso hedatua dago. Ariarren aurretiko Indian erabilia zuten nonbait. Eta \*hinduismotik at, \*budismoak eta \*jainismoak ere badute beren yoga.

Eskola konkretua baino era zabalagoz hartzen dugu, beraz, hemen. Nork bere buruaren jabetza lortzeko metodoa da. Horretarako nork bere gorputza menperatu behar du, nork bere adimena eta sentimenak gogo-bilketaren eta \*gogartearen bitartez kontrolatu, eta nork bere bizi moralala zuzendu, \*aszesiaren eta bertutezko bizieraren bidez.

Metodoaren helburua zera da: Norberaren benetazko izatasunaz jabetzea, nork bere izpiritua askatzea eta norberaren "nerau" edo izpirituarekin eta izpiritu unibertsalarekin batasun mistikora heltzea.

Metodoaren oinarrian uste hauxe dago: gorputzaren (materiaren) eta izpirituaren artean elkarrekiko eragina dagoela. Ik. Gorputza/Arima.

Hainbat yoga-modu bereiz daiteke; baina hiru hauek dira oinarritzkoak: Hathayoga, gorputzezko ariketei garrantzi handia ematen diena; \*Karmayoga, gogamenaren barne-bilketa, \*gogartea eta \*kontenplazioa nabarmentzen dituena. Yoga tantrikoaz eta \*Bhaktiyoga-z edo jaietarako yogaz ere hitzegin ohi dute.

Dena dela, guztien artean nabarmendu beharra dago yogaeskola hinduista berezia, \*Samkhya eskolaren teoriaren gain oinarritua.

Zortzi fase edo elementu daude yogaren bide osoan: Yama edo joera txarrak uztea; Niyama edo joera onak lortzea; Azana edo gorputzezko jarrerara egokiak hartzea; Pra-

nayama edo arnasa kontrolatzea; Pratyahara edo kanpoko gauzetatik gogamenez alde egitea; Dharana edo aditasun finkoz gogamena norberaren baitara biltzea; \*Dhyana edo etengabeko meditazioa edo \*kontenplazioa; \*Samadhi edo argitzapena eta gogamenaren "suntsipena".

Urrats horietako bakoitza ere yoga deitu izan dute; baina yogaren bide bakarreko faseak dira, berez.

Dena dela, zortzi faseok hiru alderdi handitara bil daitezke: a) diziplina fisi-koa, edo gorputzezko ariketak; b) diziplina morala, edo jokabide txarrak kendu eta bertuteak lantzea; c) diziplina mentala, edo gogamenaren barne-bilketa, gogartea eta kontenplazioa.

Ik. Aszesia; Aszetika.

Paulo Agirrebaltzategi

Yom Kippur

Espiazio- edo pekamen-eguna. Juduen artean urteko festarik nagusiena. Testamentu Zaharretik dator; eta gaur ere, judu guztiak, nahiz eta \*praktikariak ez izan, \*sinagoga biltzen dira egun horretan, bekatuen barkamena lortzeko.

\*Pentateukoak agintzen duenez, 7. hileko 10. egunean ospatu behar dute jaia. Aurreko hamar egunak ere penitentzi egunak dira; eta jaiegun berebean 24 orduko \*barau erabatekoa gorde behar dute judu fededunek. Ez dago lanik egiterik, "zapatu" handiena bera bait da. Sinagogako eguneko erlijioizunaren parte nagusia zera da: Antzina egun horretan Jerusalemgo jauretxean ospatzen zutenaren kondaira irakurtzea.

Ik. Espiazioa; Zapatua.

Z

Zaharberrikuntza

Ik. Berriztapena, 2.

Zaindaria

1. Sin.: Begiralea; Babeslea. Erlijio politeistetan, halako leku, lagun edo herriren baten babesleztaz ezagutzen duten jainkoa. Ik. Politeismoa.

2. Erlijio monoteistetan eta bereziki \*kristautasunean santuei eman diete eginkizun hori: Herri, toki, erakunde, profesio edo norbanakoaren bitartekari eta babesle

berezitzat aukeraturiko santuari ematen diote zaindariaren titulua. Herrikoa edo tokikoa denean, gehienetan bertako \*elizaren izenekoa izan ohi da. Dagokienez urtero ospatu ohi dute beren zaindariaren jaia.

Ik. Santua, 3; Santuen gurtza; Bitartekotza.

Zaldia

Euskal mitologian zaldi gisa irudikatzen dute zenbait \*jeinu: bai zaldi zuriaren irudira, bai suzko zaldiaren irudira. Hainbat